

## Lege-oharra

Informazio orokorra, uztailaren 11ko 34/2002 Legea (Informazio Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoiari buruzkoa) betetzeko emana.

ZAMUDIOko Udalak honako hau jakinarazten dizu:

1. Sozietatearen izena ZAMUDIOko Udala da.
2. Egoitza hau da: Sabino Arana plaza 1, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
3. IFK P4811000A da.
4. Telefono zenbakia 944060990 da.
5. Faxe: 944030622
6. [www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) Internet dominio bat da, ZAMUDIOko Udalaren titulartasunpean dagoena.
7. ZAMUDIOko Udalak erabiltzaileek emandako datuen segurtasuna eta isilpekotasuna bermatuko ditu, 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutakoarekin bat etorritik.
8. Helbide elektronikoa **[udala@zamudiokoudala.net](mailto:udala@zamudiokoudala.net)** da.

**[www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) erabiltzeko  
jarraibideak eta baldintzak**

Webgune honetan jasotako informazioa ZAMUDIOko Udalak egin da.

ZAMUDIOko Udalak jakinarazten du [www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) dominioaren bitartez ZAMUDIOko udalerrinari eta haren inguruari buruzko informazioa ematen duela; interes orokorreko informazioa ez ezik, udal antolamenduari dagozkion informazio eta gestioak

ere plazaratzen ditu. Haren bitartez, herritarrei eta, orokorrean, jende guztiari laguntzen die Udal honen jarduerak ezagutzen eta Udalari berari eta haren legeriari buruzko informazioa eskuratzen. Gainera, interakzio tresna izateko ere balio du, bai Udalaren eta bere herritarren artean eta bai Udalaren eta, orokorrean, internauten artean.

Emango den informazioa argitalpen unean indarrean dagoena izango da. Eta eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debeztatuta dago webgunea edo haren edukia aldatzea. Hala ere, ZAMUDIOko Udalak eskubidea du edozein unetan, aurretiaz iragarri beharrik izan gabe, [www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) webgunean dagoen informazioa aldatu, kendu edo eguneratzeko; beste hainbeste egin dezake informazioaren itxurarekin, aurkezteko modurekin edo aplikazioekin. Aldaketa horiek indarra izango dute webgunean erabiltzaileen eskura jartzen direnetik aurrera.

Ondorioz, arrazoizko maiztasunez kontsultatzea gomendatzen da, aldaketarik izan ote den ikusteko.

ZAMUDIOko Udalak behar diren ahaleginak egingo ditu informazio hori egokia eta zehatza izan dadin, eta ahalik eta lasterren eguneratuko du. Saiatuko da okerrik ez egiten, eta halakorik itzuriz gero, aurkitu bezain laster zuzenduko ditu. Dena dela, ZAMUDIOko Udalak ezin du bermatu ez dela okerrik itzuriko edo informazioa eguneratuta egongo dela beti.

[www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) dominioan sartu eta hango informazioa erabiltzearen gaineko erantzukizun osoa erabiltzaileena izango da. ZAMUDIOko Udalak, beraz, ez du erantzukizunik bere gain hartuko hirugarrenek webguneko informazioaz egiten duten erabileraren gainean; hala ere, hirugarren horiek kasu egin beharko diete dokumentu eta aplikazio batzuetarako jarritako oharrei. ZAMUDIOko Udalak ez du erantzukizunik izango gertaera horien ondorioz izaten diren kalteen gainean, eta ezin du bermatu sarrera ez dela etengo edota sar daitekeen edukia edo softwarea ez dela egongo okerrik gabe edo kalteak egiteko moduan.

Harremanetan jartzeko inprimakiak edo beste edozein bide erabiliz, kontsultarik edo argibide eskaerarik egiten bada, erantzuteko emango den informazioa orientatzailea izango da. Halako erantzunetatik ezin izango da ondorio juridiko loteslerik atera, eta administrazio prozedurak ebazteko ere ez dira lotesleak izango; administrazio prozedurok hertsiki lotuak daude legezko edo erregelamenduzko arau aplikagarriei.

Beste alde batetik, webgune honen bidez ematen den administrazio informazioak ez du ordezkaturiko egunkari eta aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko dokumentuen publizitatea, egunkari eta aldizkari ofizialetan argitaratzeak fedea ematen baitu edukiaz.

[www.zamudiokoudala.net](http://www.zamudiokoudala.net) webgunean beste webgune batzuekiko loturak sartu dira, beste webgune horiek interesgarriak izan daitezkeelakoan erabiltzaileentzat; beste webgune horiek beste administrazio publiko batzuenak dira, batez ere. Hala eta guztiz ere, webgunean beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek emandako informazioa argitaratzen bada edota halako informazioetarako bidea ematen bada loturen edo beste sistema batzuen bidez, ZAMUDIOko Udalak ez du erantzukizunik izango informazio horien edukiaren, zehaztasunaren eta eguneratze mailaren gainean. Era berean, beste dominio batzuetatik webgune honetarako loturarik egiten bada, ZAMUDIOko Udalak ez du erantzukizunik izango.

www.zamudiokoudala.net ataria, haren diseinu grafikoak, informazioak eta kodeak ZAMUDIOko Udalaren titulartasunpekoak dira, salbu eta berariaz adierazten denean beste titulartasun bat dutela. Haiek guztiak jabetza intelektualari buruzko legeek babesten dituzte. Dominioan jasotako informazioa berariazko baimenik gabe erabiltzen bada eta ZAMUDIOko Udalaren jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak urratzen badira, horrek ekar dezake ZAMUDIOko Udalak legearen arabera bidezko diren akzioak egikaritzea.

Dominio horren edukiak erabiltzailearen terminalera deskarga daitezke, baina edukioi erabilera pribatua eman behar zaie, merkataritzari lotutako helbururik gabe; edonola ere, inork ezin izango ditu ustiatu, erreproduzitu, banatu, jendaurrean komunikatu, laga edo eraldatu, berariaz adierazi ez bazaio horretarako baimena ematen duela.

Beraz, norbait atari honetan sartu eta atariko informazioa erabiltzen badu, sartze eta erabiltze horren gaineko erantzukizuna berarena izango da soil-soilik.

ZAMUDIOko Udalaren nahia da webgune honek eraginkortasunik handienaz funtzionatzea eta sorreran eman zitzaion helburua betetzea, oraindik ere helburu hori betetzearren eusten baitio webguneari. Hori lortzeko, behar diren arazoizko baliabide guztiak jartzen ditu, baina funtzionamenduan disfuntziorik edo anomaliarik badago, ez du erantzukizunik hartuko bere gain.

ZAMUDIOko Udalak ez du bermatuko webgunea eta zerbitzaria birusik gabe egongo direnik, eta, webgunean sartzearen edo sartu ezin izatearen ondorioz kalterik egiten bada, ez du erantzukizunik hartuko bere gain.

Webgune hau erabiltze hutsak webgunean jasotako jarraibide eta baldintzak onartzea ekarriko du berekin.

Argibide, informazio eske, iradokizun, kexa edo beste halakorik badago, webgune honen iradokizunen postontzia erabil daiteke edota herritarrentzako arretarako edozein udal bulegotara jo.

15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa) eta gainerako arau aplikagarrietan adierazita dago zein tratamendu emango zaien dominioaren bidez jasotzen diren datu pertsonalei. Erabiltzaileek emandako datu guztiak kasu bakoitzean zehaztuko diren helburuetarako baino ez dira erabiliko, eta ez dira hirugarrenen esku utziko, salbu eta araudian aurreikusitako kasuak gertatzen direnean; halako kasuotan, datuak biltzen direnean jakinaraziko da hori, baina betiere datu pertsonalak babesteko printzipioei jarraituko zaie.

Interesdunek beren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubidea erabil dezakete legeria aplikagarrian xedatutako baldintzetan; horretarako, beren burua identifikatu eta ondoren eskaera egin behar dute beraiek agertuz, postaz, faxez edo posta elektronikoz.